

BALIO PROPOSAMENA

ZER BEHAR EDO ARAZO KONPONTZEN DUGU?


Inguratzen gaituen kutsadura ikusi eta gero, konponbide bat bilatzen saiatu gara. Gaur egun, klima aldaketa pil-pilean dagoen arazoa da eta horrela jarraituz gero ondorioak latzeziak izango dira.

Jaietan, plastiko ugari erabiltzen da eta gehienak lurtean gelditzen dira eta handik itsasora doaz. Beraz, kontainer honen bidez plastiko arazo honi konponbidea bilatu diogu.

Gure xedea, azken finean, jendea **birziklatzea** bultzatzea da, mundu hobeago bat lortzeko nahian.

Gaur egun, erosten eta kontsumitzen ditugun produktuetako asko fabrikatzeko eta biltzeko plastikoak erabiltzen dira. Arazoa jada nahi ez dugunean sortzen da, eta hori, batez ere, paketatuta eta ontziratzeko erabili eta botatzeko plastikoarekin gertatzen da.

Fabrikatzeko erraza eta merkea delako eta denbora asko irauten duelako erabiltzen da plastikoa. Tamalez, abantaila horiek berek kutsaduraren lehen aliatua bihurtzen dute. Bere prezio baxuak **azkar askatzea** eragiten du, eta bere iraupen luzeak ingurumenean denbora luzez irautea eragiten du, non kalte handiak eragin ditzakeen.



Grafikoak adierazten duen bezala, nabaria da egunero erabiltzen ditugun ohiko gauzak, adibidez, goizean gosaltzeko hartzen dugun kafearen edalontzia, zenbat denbora behar duten desegiteko eta pixkanaka pixkanaka kutsatzen doala.



ZERK BEREIZTEN GAITU?

Gure ustez, bereizten gaituzten ezaugarriak hauek dira; batez ere jende gaztea birziklatzera bultzatzeko zerbitzu bat sortu dugu, bertan birziklatzearekin batera truke **sariak irabazten** dituzte eta gainera kaletik ikusi ez dugun zerbaite da. Guztiz dohainik da, beraz jendeak botilak pilatzea eta lurrera ez botatzea da egin behar duten bakarra.